

UDALAK ERATZEKO ARAUAK

I.- Eratu aitzin egin beharrekoak

a) **Egiaztagutunak aurkeztu.**- Hautetsi guztiek hala direla ziurtatuko duen egiaztagutuna aurkeztu beharko dute Udaletxearen Idazkaritza Nagusian. Halaber, Zonaldeko Hauteskunde Batzordeak, udalbatzak eratu aitzin, hautetsien izaera ziurtatuko duten egiaztagiriak igorriko ditu udaletxeetara.

b) **Hautetsiek interesak aitortu behar dituzte.**- Udalbatzako kide guztiek, beren karguaz jabetu aitzin, izan dezaketen bateraezintasunari, diru-sarrerak sortzen dizkieten edo sor diezazkieketen edozein jarduerari eta beren ondareari buruzko aitorpena egin beharra daukate. Aipatu aitorpena udalbatzak onartutako ereduetan egin behar da. Nolanahi ere, aipatu eredu hori oraindik onartu ez bada, NUKFn badira FEMPk landutako ereduak.

Martxoaren 10eko 1/2003 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, beren segurtasuna edo ondasunak, edo beren senitartekoenak, mehatxupearantz antzematen dituzten zinegotziek aipatu aitorpena Autonomia Erkidegoan eskumena duen organoaren aitzinean egin ahal izanen dute. Aitorpen horiek Erregistro Berezian, horretarako sortuan, erregistratuko dituzte. Halakoetan, udalbatzako kide bakoitzak udaleko idazkariari aipatu aitorpena egina dituela ziurtatuko duen egiaztagiria emanen dio.

c) **Kargua uzten duten zinegotziek egindako azken bileraren akta onetsi.**- Kargua uzten duten zinegotziek egindako azken bileraren aktaren onspena hauteskunde-legeriak Udalak eratzeko bilera egiteko ezarrita duen data baino hiru egun lehenago eginen da. Hauteskundeen ondoko udalak abenduaren 7an eratu behar direla kontuan hartuta, osoko bilkurak, edo, bestela, Gobernu Batzordeak, abenduaren 4an (Antolamendu eta Jarduera Araudiak -AJA- bere 36. artikuluan xedatutakoaren arabera) bilera egin beharko du azken bilkuraren akta onartzeko, soil-soilik.

d) **Ez-ohiko kontaketa eta ondarearen inbentarioa prestatu.**- Idazkariak, edo, bestela, Kontu-ikuskatzaileak, Udalbatza hautatu berria eratuko den egunean ez-ohiko kontaketa egitearren, eta esku-dirutan dauden izakinen eta Entitateak kutxetan nahiz Bankuetan dituen berezko baloreen egiaztagiriak eguneratuta egon daitezen, beharrezkoak diren dokumentuak prestatu behar ditu.

Idazkariak, halaber, Udalbatzaren eta horren baitan dauden Erakunde Autonomoen ondarearen inbentarioari dagozkion dokumentuak prestatuko ditu egiaztagiriak izan daitezen, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Arautegiko 88.1 artikulua betez.

e) **Udalbatza osatzeko bilkura deitu.**- Udalbatza osatzeko bileraren deia alkate eginkizunetan dagoenak egin behar du bilera-eguna baino bi lanegun, gutxienez, lehenago, eta, ahal bada, zirkular honetan jasotako c) atalean aipatzen den kitapena egin ondoren. Deialdian bilera zein ordutan eta lekutan eginen den jasoko da, udalbatza-aretoan, hain zuzen ere.

Bere kargua uzten duen alkatea deialdia egiteko ez badago, gaixo badago, bilera deitzeari uko egin badio edo beste edozein arrazoirik badago, zinegotzi hautetsiek erabakiko dute udalbatza eratzeko bilkuraren hasiera-ordua, aldeztuz aitzinetik adostuta.

Aitzineko prozedurak gauzaterik ez balego, Idazkariak finkatuko du Udalbatza eratzeko bilera-ordua, zerrenda-buru diren zinegotzietan kontsulta egin ondoren.

Azkenik, zenbait udalek idazkari bera izaten dutela kontuan hartuta, halakoetan, bileraren ordua adostu egin beharko da Idazkaria Udal bakoitzaren eratzeko-bilkurara joan dadin. Xede horretarako, zerrenda-buru diren zinegotzi-hautetsiekin adostutako erabakia hartuta, ordutegi egokia finkatuko da.

II.- Udalbatza eratu eta alkatea izendatu

Hauteskunde Legearen arabera, udal berriak eratzeko bilerak abenduaren 7an eginen dira. Bilkura horretan, udalbatza berria eratzeaz gain, alkatea ere aukeratuko da. Nolanahi ere, udalbatza eratutzat jo ahal izateko, ezinbestekoa izanen da zinegotzi-hautetsien erabateko gehiengoak parte hartzea eratze-bileran; zuei dagokizuenen, bi. 100 biztanlera bitarteko zuena bezalako udalerritan, hauteskunde-batzorde zentralak adostutakoaren arabera, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan (HAOLO) berariazko aurreikuspenik ez dagoen arren, 196. artikuluko bigarren paragrafoan jasotako aukeraketa-sistema ezartzen da; horren arabera, zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.

a) Adineko Mahaia osatu

Lehenengo eta behin, Adineko Mahaia osatuko dugu. Aipatu Mahaia, ekitaldian daudenen artean, adinez zaharrenak eta gazteenak osatuko dute. Alkatea bere karguaz jabetzen den arte, adinez zaharrena izanen da Mahaiburua, eta idazkaria, berriz, udaletxekoa bera.

Mahaiaren eginkizunik garantzitsuenak egiaztagutunak eta akreditazioak egiaztatzea, hautetsiei zina edo promesa hartzea eta alkatea hautatzeko ekitaldian buru izatea izanen dira.

Konstituzioari men eginen diotela aitortuko duen zin edo promesa egitea. Alegia, aipatu zin edo promesa egin ezean, hautetsiak ezin izanen du bere karguaz jabetu, ezta alkatea hautatzeko ekitaldian parte hartu ere. Zin edo promesa egitea gibelatzea hautetsiari karguaz jabetzea, efektibitatea eragozten dio; nolahi ere, horrek ez dio zinegotzi izaera kentzen.

Eratze-bilkuran ez dauden zinegotzietan bertaratzen diren lehenengo bilkuran egin ahal izanen dute zin edo promesa. Une horretatik aitzin jabetuko dira beren karguaz.

b) Alkatea hautatu

Eratze-bilkura berean hautatuko da alkatea. Alkatetzarako hautagaiak zinegotzi guztiak izan daitezke. Horietakoren batek zinegotzien botoen erabateko gehiengoa lortuz gero, alkate aukeratua izanen da. Halakorik gertatu ezean, udalerrian botorik gehien lortu duen zinegotzia izendatuko da alkate. Horrek alkatetzarako postua onartzen ez badu, boto gehien jaso duen hurrengoa izanen da.

Alkatea hautatuta, karguaz jabetu eta Udaleko osoko bilkuraren aitzinean bere karguari zin edo promes egin beharko dio. Alkate izendatutako zinegotzia udalbatza eratzeko bilkuran ez badago, 48 orduko epea izanen du osoko bilkuran bere karguaz jabetzeko; hala egin ezean, eta ezintasun-egiaztagiririk aurkeztu ezean, Alkatetza hutsik geratuko litzateke (Antolamendu eta Jarduera Araudiaren -AJA- 40. artikulua). Zinegotzi izateko egindako zinak edo promesak ezin izanen du alkate izateko egin beharrekoa ordeztu.

Alkateak karguari uko egin ahal izanen dio. Halakoetan, uko egitea idatziz egin beharko da udalbatzaren osoko bilkuraren aitzinean, eta bete gabe geratu den kargu hori Hauteskundeen Erregimen Orokorren Lege Organikoaren 198. artikulua arabera beteko da. Alkate izateari uko egite horrek ez dio zinegotzi izateari ukatzen, non eta ez dion espresuki kargu horri ere uko egiten.

c) Ezohiko kontaketa eta ondarearen inbentarioa egiaztatu

Azkenik, kontuan hartu eratze-bilkuran ezohiko kontaketa egin eta udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioa egiaztatu behar dela. Eginkizun horietan alkate hautetsia, kargua utzi duena, kontu-hartzailea eta diruzaina edo, halakorik ezean, udaleko idazkaria egon behar dira, eta emaitza aktan jasoko da.

III.- Eratze bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar eguneko epearen barruan ezohiko bilkura deitu

AJAren 38. artikulua xedatzen duenaren arabera, eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar laneguneko epean, alkateak, ondoren aipatzen diren aferei buruzko erabakiak hartzeko, udalbatzaren osoko bilkura, bat edo gehiago, deitu beharra dauka:

- a) hiko osoko bilkuren maiztasuna; ezin izanen da hiru hilez gorakoa izan.
- b) Informazio Batzordeak sortu eta osatu, halakorik dagoen udaletan.
- c) Osoko bilkuraren eskumenekoak diren organo kolegiatu guztietan udalbatzaren ordezkapena eramanen duten kideak izendatu.
- d) Alkateak hartutako ebazpenak ezagutu, hainbat arlotan: alkateordearen, Gobernu Batzordekideen (halakorik egonbehar bada), eta Informazio Batzordeetako buruen izendapena, baita alkatetzak ematea egoki ikusten dituen ordezkartzenak ere.